

TXIKIÑENA, BERTOKO ESNEKI ARTISAUEK

10 IBON LASUEN: damos mucha importancia a ser lo más autosuficientes posible en pasto y forraje

16 LAN ERRITMO BASATIAK SALATU DITUZTE GAUBEAKO TOMATE NEGUTEGIAN

18 BASTIEN GARAT: uste dut elgarrekin izigarri azkarragoak girela

3 EDITORIALA:

- La construcción de un sistema alimentario sostenible exige nuevos pilares

4 IRITZIA

- Arabako mahastiak

5 BERTSOEN TXOKOA

6 ERREPORTAJEA:

- Txikiñena

10 ELKARRIZKETA

- Ibon Lasuen

13 BERRIAK:

- Biolur, 30 urte jaialdia

15 BERRIAK:

- Euskal Sagardoa

16 BERRIAK:

- Gaubeako tomategia

18 IPAR EUSKAL HERRIA

21 BERRIAK:

- Elikatu baserrik, elikagai faltsuak debekatu

22 BERRIAK:

- Ley de restauración de la naturaleza

24 IKERKETA:

- ¿Es compatible la metanización con la agricultura campesina?

28 GOMENDIOAK

29 BERRIAK:

- Consternación ante la deriva autoritaria en Francia

La construcción de un sistema alimentario sostenible exige nuevos pilares

En la editorial del anterior número de Etxalde explicitamos la apuesta de los gobiernos de Gasteiz e Iruñea por la producción alimentaria industrializada y la construcción de laboratorios para la producción de alimentos sintéticos. Las últimas semanas han aflorado los pilares sobre los que se sustentan algunos de los proyectos que se mencionan como ejemplos de esa apuesta. Las condiciones de trabajo que se están imponiendo a las personas contratadas por la empresa Cultivos Araba para la producción de tomate hidropónico, están más cerca de la esclavitud, que de la dignidad que debiera garantizarse a cualquier persona contratada. Impedir y controlar la comunicación entre las personas trabajadoras mediante gritos, y prohibir disponer de un reloj para no que no controlen el tiempo; son algunas de las denuncias públicas por parte de las personas trabajadoras. Lo definen como el modelo "Almería", aunque las denuncias de vulneración de derechos en Huertas Peralta (Nafarroa) demuestran que es un modelo muy extendido. Entre tanto, el silencio del Gobierno Vasco (financiador del proyecto), la distribución (Eroski) y la "pata autóctona" de la empresa (Barrenetxe); lo dice todo. Por otra parte, el proyecto BioTech Food también está acaparando nuevas concentraciones del sector productor contra su implantación, así como reportajes públicos sobre la construcción societaria del proyecto, sus asesores y colaboradores, y sus intenciones de basar la producción sintética en organismos genéticamente modificados. Es reseñable que la asesoría de este proyecto recae en el bufete que lidera el cónyuge de la presidenta del Parlamento Vasco y que el apoyo financiero del Gobierno Vasco está garantizado. La multinacional JBS posee el 51% de las acciones de esta

empresa que pretende construir el mayor laboratorio del mundo, en consonancia con haber sido condenada en 2017 con la multa más grande del mundo por sobornar a 1.829 políticos de 28 partidos políticos distintos. Es muy significativo que un proyecto liderado por una multinacional experta en sobornos y corrupción, no haya levantado el más mínimo cuestionamiento por parte de las instituciones públicas a la hora de apoyar política y financieramente este proyecto. Sobre los pilares de la explotación sin límites de las personas trabajadoras y el liderazgo de multinacionales expertas en corrupción no es posible construir sistemas alimentarios que respondan a los retos de sostenibilidad que nos enfrentamos. Que el compromiso de nuestros gobiernos locales hacia la estrategia "de la granja a la mesa" se manifieste con estos proyectos, lo dice todo. Afortunadamente una parte muy importante de las iniciativas de incorporación a la producción alimentaria caminan en la dirección opuesta. En este mismo número tenemos la oportunidad de seguir conociendo nuevas iniciativas de producción y transformación propia dirigiendo la venta hacia circuitos de proximidad; así como iniciativas de redimensionamiento de la producción en base a forrajes con transformación de monte público en pradera. Es importante poner en valor estas iniciativas porque conforman los nuevos pilares, que permiten caminar hacia otro sistema alimentario local, sostenible y resiliente desde la parte productora. Las dificultades de un contexto alimentario cada vez más hostil (especulación de materias primas, desequilibrios en la cadena alimentaria, inclemencias climáticas,...), no debe llevarnos a un descontento y estado de frustración permanente que impidan reflexionar más allá del presente. Multiplicar nuevas iniciativas y demandas que caminen en la dirección de la relocalización de los sistemas alimentarios va a seguir siendo la apuesta más sólida. Solidaridad frente al corporativismo, es lo que siempre hemos confrontado como movimiento sindical.



etxalde@etxalde.eus
www.elikaherria.eus

Lege Gordailua:
SS 50-2015

Editorea: **Etxalde Nekazaritza Iraunkorra Elkarte**
Diseinua eta maketazioa: **Diseinu eta Komunikazioa AULESTI S.L.**
Inprenta: **Gertu S. Coop.**
Maiztasuna: **Bihilabetekaria**
Aleak zenbakiko: **4.650**



MIRIAN OTXOTORENA

¿HEMOS APRENDIDO O NO?

Ha pasado un año desde los devastadores y terribles incendios que por diversas causas asolaron y tuvieron en jaque a mucho pueblos de Navarra mientras ardían hectáreas y hectáreas del territorio.

¿Que aprendimos de todo lo vivido en aquellas semanas?, ¿Hemos tomado conciencia y medidas?

En aquellos días de junio sufríamos una sequía, altas temperaturas y fuertes vientos que hacían muy difícil el control y la extinción del fuego y veíamos como avanzaba y avanzaba sin control. Veíamos también como la gente de los pueblos trabajaba e intentaban colaborar para la extinción, cada uno con los medios propios de los que disponía desde garrafas de agua hasta maquinaria pesada.

Nos fijamos como el monocultivo de cereal de media Navarra ardían más rápido que otro tipo de cultivos que han ido y van desapareciendo ,frutales, viñedo, olivos, etc. así como zonas con mayor diversidad vegetal natural árboles, arbustos, matas, etc. y que el cereal llegaba o mugaba con nuestras casas por el desarrollo urbanísticos que sea producido en los últimos años; cómo nos hemos comido las eras, huertas, etc. que frenaban la llegada del fuego a los cascos urbanos; que no tenemos pastores o ganadería extensiva en nuestro pueblo.

¿Qué podemos hacer? Fomentar o incentivar una agricultura más diversificada y un desarrollo urbanístico de nuestro cascos urbanos para que en caso de incendio la interfaz urbano forestal sea mayor, manteniendo un perímetro alrededor del pueblo de zonas verdes con vegetación no muerta y dotando a los pueblos de un protocolo en caso de incendio con tomas de agua, mangueras, etc. además de formación para voluntarios.

Hemos visto también como los montes comunales de Navarra ardían de distinta forma según la gestión que se realiza en ellos, y con qué especies se han reforestado, si se permite y favorece la presencia de ganado en los montes y bosques, si se realizan desbroce o no

tanto para que el fuego no avance como para el silvopastoreo.

¿Qué podemos hacer? Las reforestaciones que se realicen sean de bosques autóctonos, que se permita y se fomente la presencia de la ganadería extensiva en ellos. En definitiva aumentar la biodiversidad de nuestros campos y mantenimiento de los bosques con el pastoreo para que disminuya la rapidez e intensidad del fuego.

Hemos visto como las administraciones cercanas, concejos y ayuntamientos, así como, en el Gobierno de Navarra, en los presupuestos del 2023, no han habilitado partidas presupuestarias nuevas que vayan en un cambio de dirección en la gestión del territorio de forma que haya todos los años unas partidas dedicadas a prevención y gestión del territorio para que los daños sean los mínimos posibles.

Tras el incendio se ha visto que los incendios son difíciles de controlar y apagar pero que podemos prevenir, coordinarnos, formarnos y gestionar el territorio y los pueblos de otra forma para que el fuego no corra a sus anchas. Las condiciones que se dieron en junio del año pasado pueden repetirse, el inicio de esta primavera marcaba en esa dirección hasta que llegaron las tormentas de mayo, esperemos que para la primavera del año que viene hayamos iniciado ese cambio de gestión de nuestras tierras.



BERTSOEN TXOKOA



Neba-arreba edo ahizta

Zu ere izan aktibista

Ezin izan konformista

Sistema honi egin zista

Denon bizitzak erdigunean

Jartzeko zorrotzu bista

Berri larriak identifikau

Aldaketei eman pista

Zaintza lanak duindu, banatu

Ta ordaintzearen konkista

Pribatizazioari aurre egin

Kolektiboaren konkista

Iraultzeko protagonista

Greba orokor feminista

Azarorarte ahalegindu

Zapalkuntza oro birrindu

Aldarrikapenak findu

Hogeiatarrean astindu

Antolatu, aktibatu, saretu

Eskubidetan berdindu

Arduradunak interpelatu

Goitik behera zipriztindu

Kolonialismo, patriarkatuaren

Zamak nahi badira arindu

Agroekolojiaren makilak

Beharko luke agindu

Lurraldea ta lurra zaindu

Doinua:

Baneza eta banitu





TXIKIÑENA

BERTOKO ESNEKI ARTISAUEK (Berriatua, Bizkaia)

Txikitasunean askotarikoa da Txikiñenaren produktu eskaintza: larrean dabilzan euren behi eta ahuntzen esnea eta esneki sorta oparoa. Ahuntz esnea esneki enpresa bati saltzetik, elaborazioa berak egitera pasatzeko apostua egin zuen Aimar Bilbaok bere bikote Amalur Arrietarekin batera orain dela urte bi. Harrez gero, euren esne eta esnekien kalitateari esker, lekua egin dute merkatuan, beti ere salmenta zuzena eta kontsumo elkarteen bidezkoa lehenetsita; aurten Markina-Xemeingo Bekobenta eskola ere hornitu dute esne eta jogurtekin. Esneki, Euskal Herriko I. Gazta eta Esnekien Azokan 1. Saria eskuratu dute 2022an gazta kremen eta jogurten ataletan.

“Honelako produktuen eskaria, egon badago, horretan ez daukagu arazorik. Arazoak bideko oztopo burokratikoetan gabiltza topatzen”.

Orain dela 18 bat urte sartu zen nekazari gazteen programan Aimar Bilbao berriatuarra, batxiler ikasketen ostean Fraisoren heziketa zikloa eginda. Aitxitxe-amuma baserriarren biloba da, baina gurasoek ez zuten bide bera jarraitu. Aimarrek, ostera, gaztetatik ganaduzaletasuna zekarren. “Okelarako txahalak loditzen hasi nintzen; hauxe da horretarako egin nuen korta (Plazakola eta Berriatua arteko errepide ondoan); gero esnerako ahuntzekin egon nintzen urte batzuk, eta esnea Haroko (Rioja) Lacteos Martinez enpresari saltzen nion, Los Cameros gaztandegirako”. Baina esnea beste bati saltzeak dakarrena beti prezioak estutzen ibiltzea zela dio. 250 ahuntz eta esnerako beste 15 behi zeuzkan orduan; erabakia izan zen abere kopurua murriztea baina berak hartzea beregain salmenta. Hasieran esne pasteurizatuarena bakarrik, eta orain dela urte bi ausartu zen transformazio propiorako saltoa egitera, bikotearen bultzadarekin, eta Leartikerren Esneki zentroaren aholkularitza lagun.

— Produktu ugari eta kontsumo elkarteen bidezko salmenta

Zazpi produktu egiten dituzte momentu honetan Txikiñena Bertoko Esneki Artisauek markarekin. Behien kasuan, esne pasteurizatua eta jogurta; behi eta ahuntz esneen nahastearekin gazta freskoa, eta pasta biguna deritzon gazta bigun bat penicillium azala duena; eta ahuntzaren kasuan, esnea, gazta krema zabalgarri bat eta oraintsu hasi dira ahuntzaren ruloa ere egiten; “arrakasta handia euki du”.

Produktuak egiteko orduan Leartikerren Esneki zentroaren laguntza garrantzitsua izan da eurentzako; baita beste esnegigile artisau batzuekin kontaktua egin eta haien aholkuak jarraitzea ere. Produktuak egoki eta gustagarri lortzeko bidea ez da beti bardina izaten: “Ahuntzaren krema zabalgarriaren lehenengo aproba egin genuenean Leartikerrekoekin, ondo urten zuen lehenengoan, eta oraintxe ere errezeta horixe jarraitzen dugu; ruloa lortzeko, barriz, pasa den urrian hasi ginen aprobak egiten, eta ezinean ibili gara oraintsu arte!” Hori ere batzuetan gertatzen baita elaborazio egokia lortu arte: “8-10 elaborazio egin genituen eta bertan behera laga genuen, ez zelako ondo urteten; gero otsailean ekin genion barriro, beste batzuen adibideak ezagutzera joan ondoren, eta oraintsu lortu dugu rulo ona”. Zer da kontua-eta, momentu honetan berau da gehien saltzen duten produktua; “krema zabalgarria ere oso ondo saltzen da, baina orain ruloa da lehena”.

Momentu honetan, Igorreko eta Soralezeko beste bi ahuntzdunegaz batera, Leartikerren Esneki zentroan dabil Txikiñena 2023rako berrikuntza proiektuan sartuta: “gure kasuan, jada egiten dugun produktu bat, penicillium daroan gazta, hobetzeko proiektua da”. Euren produktuen sorkuntza bidean hasieratik izan dute bidelagun, hain zuzen be, Leartikerren Esneki zentroa.

Kontsumo taldeen bitartez saltzen dute euren produkzioaren zati handi bat: Oiartzungo Labore, Azpeitiko Elikagunea, Zarauzko Lakari, Bergara eta Arrasateko Erein da Jan edota Lekeitioko Amaren. “Durangoko bi gozotegitan, bertan inguruko herriko denda txikietan be saltzen dugu, eta ikasturte honetan hasi gara Markinako eskola be hornitzen”. Pozik daude salmenta bideokin, eurok esandako prezioen errespetuan oinarritzen direlako.



— A2A2 esnearen aldeko apostua eta ganadua larrean elikatzearen aldekoa

“Berba batean esateko, A2A2 esne historikoa da”, Aimar Bilbaok azaldu duenez. Genetikoki hobetu gabeko behiak dira esne mota hori ematen dutenak. “Beta-kaseina A2A2 deritzon proteina daukate euren ADNan behi hauek; eta ematen duten esneak ez du miraririk egiten; alergia euki ezker hori ezin du konpondu, baina melakaseina deritzon proteinaren bidez, digestio prozesua azeleratu egiten du. Gainera esne hau berez da laktosa oso gutxikoa”. A1 proteina daukan esneak, berriz, digestioa luzatu egiten du, eta astuna gertatzen zaio jende askori. Beraz, ohiko A1 esneak kaltea edo intolerantzia eragiten dienez egokia da A2A2: “betiko esnea”. Gurutzetan umekin egindako arobetan ere emaitza oso ona eman du intolerantzia kasuetan.

Txikiñenako behi batzuk Fleckvieh arrazakoak dira eta beste batzuk frisonak montbeliarde-gaz gurutzatutakoak. 20 bat buru maneiatzen dituzte: 12 jazen, bi-hiru antzuak eta gainontzekoak urru-xak oraindik. Txikira eta betiko esnera egindako apostua da eurena.

Ahuntzen kasuan, Florida arrazakoak dira orain dituen ia denak: “Sevillara joan eta handik ekarri nituen”. Lehen, esnea beste bati saltzen zion garaian, murtziarrak euki zituen; 240 bururaino ere bai. “Baina horiei pentsu eta alpapa asko eman behar zitzaizkien, gero esnea oso merke saltzeko...”. Ahuntzen kopurua erdira murriztea erabaki zuten, beraz. 115 bat dira orain; alpina gutxi batzuk, eta flordiak.

Ganadu gutxiago eta rustikoa, hori izan da hartutako bidea: “Egun osoa larran dabilta, eta behiak ere bardin; pentsu eta erositako forrajeekiko dependentzia ahal den gehiena kendu dugu: erosten dugun bakararra lastoa da; bedar sikua dana geuk egiten dugu; 300 bat bola aurten. Artoa be 3-4 hektarea ereiten dugu, eta geuk txikitu gero, baina aurten ez gara ailegatu...”.



— Larreak lortzeko zailtasunak

Bizi Etxebarrian bizi da Aimar Bilbao bere bikote eta hiru semeekin. Larreak, berriz, Etxebarrian bertan ez eze, Berriatuan eta Mendaron ere badauzka, nahiz momentu honetan Mendaroko behi kortaren maneiua beste kide batzuen esku utzita euki. Ahuntzak jatzi Berriatuko kortan egiten dituzte; bertan alboan daukate eginda obradorea be, momentuz. “Jazteko ahuntzak hemengo mendi sailera ataraten ditugu goizero, eta iluntzero batu; baina urru-xak eta antzuak Etxebarrian dauzkagu, behiak be bardin, urru-xak eta antzuak Etxebarrian, eta hemen bakarrik jazteko daudenak”. Lurrak, errentan hartuta dauzkan bi larre kenduta, danak erosi ditu, eta zelai bihurtu: Mendaron 45 hektarea inguru eta Etxebarrin 15 bat. Pinadi edo sastrakadi izandako lurren transformazio prozesuak luze jotzen du Aimar Bilbaok azaldu duenez: “Mendarokoa erosi nuela badira 12 urte eta oraindik ez da zelai-zelai, baina badoa, desbrozeekin lagunduta-eta...”

Lurrak hurretik hurrera lortzea oso gatxa dela azaldu du Bilbaok. “Begitu, hemen daukagu korta hau eta hasieratik erosi nuen terrenoa, eta alde batean zein bestean dauden sailak beste batzuei errentan emonda dauzka jabeak, aisialdirako. Haiei kobratzen diena nik ezin diot eskaini jabeari...” Inungo arau edo lehentasunik ezarri ezean nekazaritzako lurrei nekazaritza eta abeltzaintzarako erabilera emoteko, sekulako oztopoa topatzen dute ekoizle txikiek.


— Oztopo handienak, burokratikoak

Gordin mintzo da Txikiñenako abeltzaina, bere antzeko beste ekoizle txiki asko legez: “Asuntoa jodiduta dago! Eta gainera, esango nuke orain-txe azken urteotan dabilzala sekula baino oztopo administratibo eta burokratiko gehiago ipintzen”. Euren obradorearekin gertatutakoa jarri du adibide modura: kortaren ondoan egiteko baimena eskatu zuten, eta baldintza jarri zioten kaseta desmonta-

garriekin egiteko, besterik zehaztu barik. Horrela egin zuten. “Ba orain esaten digute pabilioitik bi metro banaduta egin behar zela, eta gainera errepidea ondoan dagoenez, talud-etik 9 metrora egon behar dela, eta alde batean badago tarte hori baina bestean ez... Errepidearen erdiko marrarekiko 25 metrora egon behar dela, eta 22ra dago”. Beraz, obradorea lekuz mugitu beharko dute. Euren bizi diren etxearen ondoan, Etxebarrian, egin nahi izan dute obradore barria, baina han ere trabak: “erreka daukagula 60 metrora, eta han ezin dela”. Hiru pertsonak lan egiteko moduko obradore txiki bat egiteko horrenbesteko traba topatzea salatu du: “ez da normala, edo ez litzateke izan behar”. “Oztopoak jakin nahi dituzue? Ahor, oztopoak. Jogurtak eta gaztak saldu, oso ondo! Arazoak ez dauzkagu salmentan, holako burokrazian baino”.

Dirulaguntzak edo jaso beharrekoak, barriz, nekez datozela azaldu du, eta erroreak, trabak eta atzerapenak askotan gertatzen direla. “Iaz Ukrainakoa gertatu zenean laguntza bereziak iragarri zituzten hornigaiengatik-eta; baina oraindik ere ez ditugu jaso 7.000 eta piko euro horiek, paper danak ondo egin arren”. Esne-behiak euki arren, okelatarakoak balira bezalako dirulaguntzak jaso ditu azken urteotan: bakoitzeko 250 euro izan beharrean, 100 euro. Zergatik, ez daki. Beste adibide bat, BEZaren itzulketekin azaldu du: “duela urte eta erdi erositako banaketarako furgonetaren 15.000 euroko BEZ daukagu bueltan jasotzeko oraindik, eta asteon hirugarren errekerimendua tramitatu behar izan dugu. Galdetzen digute ia ze esne eta esneki saltzen dugun...!”

Ekoizleentzako lurraren eskuragarritasuna eta burokraziaren sinplifikazioa lortu beharko dira, beste la Txikiñena eta antzeko proiektu txiki, kalitatezko eta bideragarriak bidean gera daitezke, oztopoen lasterketan behea jota.



IBON LASUEN Latxaberri Txahal Okela – Abadiño

// **Damos mucha importancia a ser lo más autosuficientes posible en pasto y forraje** //



Hablamos con el joven ganadero de Abadiño, del proyecto de producción de carne de bovino que comparte con su pareja Esther Ugaldea, y del uso de un terreno del Fondo de Suelo Agrario de la Diputación Foral de Bizkaia, el cual han convertido en pasto viable tras un trabajoso proceso de transformación

Ibon Lasuen (Abadiño, 1990) es un ganadero de los de vocación temprana: empezó a manejar sus propias vacas con tan solo 16 años. Entonces eran 4 ejemplares, y ahora 35, todas de raza pirenaica. Hay que añadir los 60 terneros que está cebando actualmente; "este año calculo que serán 120 terneros los que iremos sacando al mercado". Su apuesta, la producción de carne de calidad, basándose en la alimentación con pastos propios en la mayor medida posible, y la comercialización diversificada de cercanía.

— **Ubícanos en el mapa en primer lugar.**

Estamos en el barrio Gaztelua de Abadiño, en el caserío Larrazabaletxebarria. Mi aitite fue baserritarra toda la vida, mi aita combinó el trabajo fuera del caserío con la ganadería, y en el momento en que dudó si quitar el ganado o no, fui yo el que tuve claro que quería seguir con ello. Desde pequeño me ha gustado esto.

— **Ahora compartes proyecto con Esther Ugaldea.**

Sí, ella también viene de una familia que siempre ha tenido ganado, aunque no se hayan dedicado exclusivamente a ello; es del caserío Arietalanda de Elorrio, conocido como Berrixona. Hace cuatro años decidimos dar forma al proyecto Latxaberri Txahal Okela, y aunque ella también tiene otro empleo, está implicada conmigo en Latxaberri.

— **¿Qué habéis modificado en vuestro proyecto?**

Yo antes cebaba vacas y terneras para venta a través de carnicerías solamente. Ahora combinamos la venta a carnicerías, con la venta directa semanal de paquetes de carne a nuestros clientes, y con el suministro de carne para asar para Karlos Ibarrondo; esto último sobre todo en temporada de verano.

— **Habéis diversificado la comercialización, pero sin dejar de lado las carnicerías.**

Sí, nuestra carne está en dos carnicerías de Abadiño, en Elorrio, en Atxondo y en Zornotza; sin salir de nuestra zona. El margen es muy escaso, aun siendo yo

un productor no tan pequeño; yo puedo jugar con la compra a mayor escala en el caso de los fardos etc... pero aun así el margen es muy limitado. A pesar de todo eso, no hemos querido dejar de suministrar a estas carnicerías, porque queremos que la gente tenga a su disposición buena carne de cercanía. Pero bueno, cuando hagamos bien los números del año, seguramente salimos perdiendo.

— **Lo combináis con la venta directa. ¿Cuáles son sus ventajas y sus problemas?**

La ventaja es su mayor margen de beneficio. Pero bueno, no tenemos el margen de hace 4 años, porque no hemos aplicado todo lo que ha subido el pienso o el combustible en el precio final. La desventaja, o el problema mayor es que es mucho más trabajoso: tienes que coordinar pedidos, hacer los repartos y asegurar los cobros, cada semana. Y tampoco todo tipo de clientes se adaptan a la modalidad de los lotes de carne. Por eso nos parece necesario combinar varias vías de comercialización.

— **¿Qué dependencia tenéis, en este momento, de los piensos y forrajes?**

En el caso de las vacas, casi nula. Los tres meses de invierno que están en el establo sí las ayudamos una vez al día con pienso, pero el resto del año pastan fuera. Los terneros que cebamos se alimentan a partes iguales de forraje y de pienso. Traemos el pienso de una fábrica pequeña de Gasteiz, y la paja sí la traemos de fuera. En cuanto al forraje propio, el año pasado pudimos hacer unas 250 bolas, y nuestro objetivo este año es poder hacer 100 más, porque queremos limitar nuestra dependencia del forraje externo. Este año hay bastante hierba; a ver si la meteorología nos deja manejarla. Damos mucha importancia a ser lo más autosuficientes posible en pasto y forraje.

— **El precio de la paja no está para bromas... ¿es debido a las sequías?**

En parte será así, pero también hacen uso del pánico, y han solido acaparar y guardar paja para luego soltarla al mercado subiendo precios... Eso también es así.

— **¿Cuáles son los mayores obstáculos que os encontráis en este momento en vuestro proyecto?**

Un gran obstáculo siempre son los precios, y su relación con la subida de los costes que hemos tenido. Y otro gran problema es que no encuentro cerca terneros pasteros para comprar para el cebadero. Mucho buen género, bien pagado, se vende fuera, y los ganaderos de aquí nos quedamos colgados... Si antes pagaba yo 600 euros por un ternero, ahora ya son 800.

— **¿Por dónde pasan las soluciones a esos problemas, en tu opinión?**

Yo creo que las ayudas públicas tienen que ir destinadas a que el ciclo completo de la carne se realice en el mismo territorio. O sea, ayudar a los pasteros que crían para cebar en cercanía; y ayudarnos a los cebaderos a que nos suministremos con género de cercanía y que luego vendamos la carne en cercanía también. No ayudar a criar ganado para que luego se vaya todo fuera...

Mucha ayuda pública se va a destinar a producir carne... de laboratorio, argumentando que hay que bajar la huella de carbono que produce la ganadería.

Eso será la macroganadería... Creo que elaborar en laboratorio lo que ya existe, es tirar piedras sobre nuestro tejado. Gestionando ganaderías pequeñas con sentido común, se mantiene bien el equilibrio medioambiental, y eso apenas deja huella. Porque, si quitan a las vacas, habrá que desbrozar con máquinas... Y esas sí que dejan huella contaminante! Y por favor que no nos mencionen los gases que lanzan las vacas, cuando tenemos todo el cielo lleno de aviones...

— **¿Quieres recalcar algún mensaje?**

Que hay que apoyar la producción y el consumo de cercanía.



TRANSFORMACIÓN DE UN TERRENO PÚBLICO ABANDONADO Y POBRE, EN PASTO VIABLE

Latxaberri Txahal Okela, en colaboración con el cocinero y cliente Karlos Ibarrondo que le ayuda en la gestión, apostó hace tres años por alquilar un terreno del Fondo de Suelo Agrario de la Diputación Foral de Bizkaia, transformándolo en pasto. Se trata de un terreno de 17 hectáreas, de las que 12-13 han resultado aprovechables. Un terreno ubicado muy cerca de Latxaberri. Esa cercanía y la posibilidad de incrementar los pastos disponibles animaron a Ibon y Esther a embarcarse en este proyecto. Ha sido, eso sí, un proceso muy trabajoso y lleno de vicisitudes.

¿Qué uso tenía previamente ese terreno?

Fue propiedad del Ayuntamiento, se usó para cría de ciervos, y estaba vallado entero. Luego estuvo abandonado, y el Ayuntamiento se lo cedió a la Diputación, que sacó a concurso su gestión para 10 años. Es un terreno que, por ese abandono, estaba cubierto de argoma, de manera exagerada. Por otro lado, se trataba de un terreno pobre, con una capa fértil muy fina, con pizarra muy cerca. Aun así, por su cercanía, su orografía y su tamaño, nos animamos a optar por su gestión, gracias a que Karlos (Ibarrondo) me ayudó a ello.

¿Para cuánto tiempo dispones de la gestión de ese terreno y cuánto pagas a la Diputación?

Fue un contrato para 10 años, y pago 2.222 euros al año, que es bastante. Los cálculos los hacen pensando en que todo va a ir perfecto, pero los imprevistos que ha supuesto simplemente el proceso de recuperación de ese terreno, no se tienen en cuenta...

¿En qué términos crees que deben mejorar las condiciones de uso de este tipo de suelos de la Diputación?

Creo que deben tener en consideración que realizamos un servicio de mantenimiento de ese terreno, y lo tenemos a disposición del público, para quien quiera disfrutar del mismo. Pero para llegar a ponerlo bien, como está ahora, nosotros hemos invertido mucho tiempo y dinero; no creo que sea justo que dentro de 7 años tenga que prescindir de él.



Me gustaría que estos contratos de suelo agrario fueran hasta la jubilación del ganadero o el agricultor, y después, concedérselo a otro proyecto de ganaderos jóvenes.

¿Cuéntanos qué trabajos habéis tenido que realizar para transformarlo en pasto.

Primero hicimos un desbroce general en 2021 (ahí me fastidié el tractor: 6.000 €), porque había unas argomas exageradas. Luego pasamos la grada de discos, volteamos, y como era un suelo muy pobre, trajimos 85 trailers de estiércol de pato de la granja que tiene MIBA en Elgeta. Con un remolque-esparcador, extendimos una gran capa. Después, pasamos de nuevo la grada de discos, la grada rotativa y sembramos. El primer año vino un pastizal increíble! Pero luego entró en acción la oruga, y el siguiente año hubo muy poco pasto. En 2022 de nuevo hemos empleado estiércol de gallina y de pato, hemos labrado y sembrado de nuevo, y el pasto viene bien; de momento sin presencia de oruga.

¿Habéis apostado por transformar en pasto más terrenos aparte de éste?

Sí, cuesta mucho conseguir praderas para pasto, y el año pasado también hemos comprado otras 9 hectáreas de monte, y las hemos transformado nosotros en pradera. Ha supuesto también bastante trabajo: alisar el terreno, destocoñar, pasar la grada, abonar con estiércol y sembrar.



BIOLUR 30 URTE JAIALDIA UZTAILAK 9, IRAETAN

AURTEN 30 URTE BETE DITU, ETA HIRU HAMARKADA HAUETAN ASKO IZAN DIRA BIOLUR PROGRAMAN PARTE HARTU DUTENAK. BIDEAN HAINBAT ERAGILEK ERE LAGUNDU DUTE.

Arraunean bezala, atzera begira, etorkizunera begira aurrera egiteko asmoarekin egiten da lan Biolurren.

Hori guztia elkarrekin ospatzeko, egun berezia antolatu da. Goizean hasiko da Biolur elkartearen batzar nagusiarrekin, eta gero egitarau zabala bezain ederra dugu.

Ekitaldia 14: 00etan hasiko da Iraetako frontoian, eta bertan jai giroaz gozatu eta bazkalduko dugu. Gainera, ekitaldiaren aurretik (12: 30-14: 00) Amillubi Txiki baserri eta ingurura bisita egingo da. Amillubi etorkizunera begira dugun proiektu garrantzitsua da eta, ospakizun egun honetan, han zer dugun partekatze gogoz gaude.



asegura tu explotación

EHNE-Bizkaia te posibilita, a través del Seguro Agrario, cubrir en las condiciones más amplias la vida de tus animales y tu cosecha.

No dejes al azar tu futuro y asegura las incidencias que pueda sufrir tu explotación con un pequeño coste para tu explotación.

Existen diferentes modalidades de seguro que cubren desde accidentes, enfermedades, complicaciones en el parto, mamitis... La amplia variedad existente te permitirá acondicionar el seguro a tus propias necesidades.

Infórmate y elige las opciones de aseguramiento que más te interesen.

Infórmate
y protégete

94 669 39 85
94 674 90 08



EUSKAL SAGARDOA JATORRI DEITURAK 2022 UZTAKO SAGARDOAK AURKEZTU DITU

Euskal Sagardoa osatzen duten 50 sagardogileen 80 Euskal Sagardo desberdinak azaldu dira, %100 bertako sagarraz eginak eta kalitate-bermea dutenak. "Izaera handiko sagardoak dira eta oso lurrintsuak"

Euskal Sagardoa jatorri-deiturak 2022ko uztako sagardoa aurkeztu du. Hernaniko Chillida Leku museoan. Euskal Sagardoa Jatorri Deiturako 50 sagardotegiek 80 produktu desberdin aurkeztu dituzte.

Euskal Sagardoa osatzen duten Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako 50 sagardogileen 80 sagardo aurkeztu dira, 250 sagargileren sagarrekin eginak. Uzta txikia izan da kopuruz 2022koa, baina izaera eta kalitate onekoa. Guztira, 2 milioi kilo bildu dira eta 1,2 milioi litro Euskal Sagardo egin ahal izan dira. Orokorrean izera eta gorputz handiko sagardoak dira eta lurrintsua.

Baina sagardotegi eta sagardo bakoitzak ditu bere berezitasunak. Bide horretan, gauza bereziak merkaturatzen ari dira Euskal Sagardoa Jatorri Deiturako

sagardogileak azken urtetan: lursail jakineko sagardoak, sagar mota jakinekoak, kriantzakoak, egurrean paseak eta abar.

Jatorri-deitura urte askotako lanaren emaitza eta etorkizuneko apustua dela nabarmendu dute sustatzaileek. Erakunde publikoek eta sagar eta sagardo sektoreak elkarlanean osatzen dute Kontseilu Arautzailea eta etorkizunerako apustua. Euskal Sagardoa zigilua daramaten sagardoek bi ezaugarri nagusi dituzte: %100 bertako sagarrarekin eginak dira eta kalitate-bermea dute. Baina hirugarren ezaugarri bat ere badute, dibertsifikaziorako aukera zabaltzen ari direla.

Urtarrilaz gero, txotxean dastatu ahal izan diren sagardoak botilaratzen hasi dira sagardotegiak. Izaera handiko sagardoak dira uzta txikia izan baita 2022koa eta heldutasun handikoa. Kolorez hori ilunak dira sagardoak, gorputz handikoak, lurrintsuak eta luzera ondo eboluzionatzen dutenak.

LABORARIEK DIRU BILKETA ABIATU DUTE, EKAITZ BORTITZAREN ONDORIOAK ESTALTZEKO

Ekainako tenpestaren ondorioz laborari batzuk ezingo dute ekoizpenik segidan merkatuetan eta saskietan proposatu. Etxaldeak laguntzeko, BLE elkarteak, Idokik, ELB-k, Inter AMAPak, Ezpeletako biperraren sormarkak eta Irulegikoak diru bilketa bat egiten dute.

Batzorde tekniko bat plantan ezarri da hunkiak izan diren laborarien artean dirua banatzeko. Sos emaitza bat egiteko: Euroz, HelloAsso gunean hemen klikatuz.

Euskoz: biramendua eginez Eusko kondu honetara ZBK 54024691 emaitzaren arrazoina zehaztuz erranaldi honekin «intempéries juin 2023 Ekaitza».

Kazkabarrak txikitutako baratze bat. ARGIA





Gaubeako tomate negutegia martxan da. Argazkia: PHOT.OK

Lan erritmo "basatiak" salatu dituzte Gaubeako tomate negutegian

Ekainaren 13an sartu zituzten lehen tomate landareak Gaubeako tomate hidroponikoen makro-negutegian, 130.000 landare hain zuzen, eta negutegi erdia martxan jarri dute jada. Hurrengo tomate txanda irailean sartzea aurreikusten du Cultivos Araba enpresak, eta horrekin batera, negutegia funtzionamendu betean jarriko dute, eta agindutako berrogeita hamar langile kontratatuko. Alta, planta martxan jartzearekin batera, langileen kontratazioaren eta lan baldintzen inguruko salaketak zabaldu dira Gaubean eta Añanako Kuadrilla osoan.

Langileek azaldu dutenez, eskualdeko 60 bat lagun ibili dira 2022 urtetik negutegian lan egiteko ikastaro berezi bat egiten, eta enpresa, ordea, kanpoan ari da jendea kontratatzen, prestakuntzarik gabe. "Gaur, hamabost langile daude plantan lanean, eta gehienak ez dira ikastaroan ibilitakoak. Magrebtekin kontratatu dituzte, Gasteizko ABLEen bitartez, eta hemengo langile batzuk ere, baina ikastaroa egin ez dutenak". Azpimarratu dutenez, tomate hidroponikoetan lan egiteko ikastaroa egin duen jende gehienari "ez diote deitu ere egin".

Negutegian lan egiteko itxaropenarekin, bi hilabete eta lau hilabete arteko formakuntza egin dute Añana inguruko 60 bat gaztek. "Printzipioz, -esan dute langile ohiek- prestakuntza hori beharrezkoa zen tomate plantan lan egiteko. Denetarik ikasi behar izan genuen, azken belaunaldiko negutegi baten funtzionamendua, tomate hidroponikoen maneia... Guztira, hiru ikastaro egin dira, eta baikoitzean 20-25 pertsona ibili gara", adierazi dute.

Praktikak, berriz, Barrenetxe kooperatiban egin dituzte, Bizkaian, enpresa hori baita Almeriako Hispa-



lusekin batera Cultivos Arabako bazkidea. "Ahalegin handia egin zuen jendeak ikastaro horietan parte hartzeko; batzuk langabezia zeuden, baina beste batzuek lana utzi zuten negutegian lana lortzeko itxaropena zutelako. Esan ziguten ikastaroa gainditu behar genuela lanean sartzeko, azterketa ere egin genuen; bermerik ez zegoen, baina argi zegoen formaziorik gabe ezin zela sartu", azpimarratu dute langile ohiek.

— DIRU PUBLIKOA, ATZEAN

Are gehiago, Cultivos Arabako plantan lan egiteko ikastaroak Arabako Foru Aldundiak diruz lagundutakoak izan direla azpimarratu dute: "100.000 euroko inbertsioa egin du Arabako Foru Aldundiak, Hazi bitartez, ikastaro horiek finantzatzeko. Amorrua ematen digu diru publikoa horrela erabiltzea".

Langileen formakuntza finantzatzeko ekarpena ez da tomate hidroponikoen plantak jaso duen diru laguntza bakarra. Añanako langileek gogoratu dutenez, "Pepe Alonso Hispaluseko nagusiak Eroskin nahi zituen saldu tomateak, eta horretarako Barrenetxe Bizkaiko nekazaritza kooperatibarekin elkartu zen, eta Cultivos Araba sortu zuten. Modu horretan, Eusko Jaurlaritzaren diru laguntzak eskuratu dituzte". Guztira, 4,7 milioi euroko diru laguntzak jaso ditu Cultivos Araba tomate hidroponikoen planta martxan jarri ahal izateko.

Tomate plantan darabilten kontratazio politikarekin batera, lan baldintzak eta kaleratzeak salatu dituzte langile ohiek. Ziurtatu dute "oinarririk gabeko arrazoiengatik" kaleratu dutela jendea: "Kexatzen denean, jendea botatzen dute. Ez da enpresa serio bat. Dena berdina zaie, eta oihukatzea da dakiten gauza bakarra da".

Bestalde, behin tomateak sartu direnean plantan eta negutegia martxan jarri denean, ageriago geratu da langileentzat lan esku oso merkea behar dutela, "Almeria estiloko lan baldintzak ezartzea, dena azkar eta arreta gutxirekin egitea". Halaber, lan erritmo "basatiak" inposatu dituztela ohartarazi dute, "etorkinek ere aitortzen dute hori, eta esaten dute txakurrak bezala tratatzen dituztela".

Langile ohien salaketaren arabera, ez diete hitz egiten uzten. "Eta jendea entzuten dutenean hitz egiten isiltzeko oihukatzen digute; ezin da erlojua sartu lanera, denbora ez kontrolatzeko. Haiek kontrolatzen dute erritmoa, zenbat orga betetzen diren kontrolatzen dute ohol batean, eta jendea horrekin presionatzen dute", esan du langile batek. Beste batek dio: "Harrigarria da, erlojuaren kontra lan egiten da, korrika batean, eta lana, noski, gaizki gelditzen da, baina hori ez zaie inporta".



BASTIEN GARAT

USTE DUT ELGARREKIN IZIGARRI AZKARRAGOAK GIRELA

“Produksioea hastapenetik bukaerarat eramaitea interesenta atzemaiten dut. Xerrikumeak sortarazi, gizenarazi, transformatu eta saldu, hori da ene helburua.”

■ Zer izan da zure ibilbidea ?

Oloronen sortu naiz. BTS « Gestion des espaces naturels » egin dut. Hor ohartu naiz gustatzen zaizkidana laborantxa zela. Ondotik, « Gestion des espaces pastoraux » lizentzia egin dut. Orduan ene proiektua zen laborantxan lan egitea, baina familian ez ginuen etxalderik. 2016an parada bat ukan dut Lourdios-en lur zonbaitzuen arrahartze-ko. Lagun baten amak Euskal xerriak bazituen eta proposatu nau segidaren hartzea. Gizentzen hasi naiz, 3 parke nituen eta 80 bat xerri egiten nituen urtean. Lehen bi urteetan sailari saltzen nituen. 2019an Xuhiton sartu naiz eta transformatzen hasi naiz. Enetako gustukoena zen, nahi nituen nihaur

ene mozkinak transformatu. Orduan haragi freskoa saltzen hasi naiz eta ene sarea egin dut. Bi urte eta gero, lehen xingarrak etorri dira eta hor beste zirkuito bat atxeman behar nuen, karioago baita, ez da ber pertsoner saltzen.

■ Euskal Herrirat hurbildu zira ?

2020an, bioseguritate arau berriak ukan ditugu, parkeak arraegin behar ginituen. Baina, Lourdios bai Xuhitotik bai hiltegitik urrun zen, eta duela zonbait hilabete hasi nintzen etxalde edo lur eremu baten xekatzen, aktibitatea Euskal Herritik hurbiltze-ko. Lurrak Ligin atxeman ditut. Arrainstalatu naiz 2021ean. Auzapezak herria arradinamizatu nahi zuten eta laborari zonbait plantatu : segidarik ez zu-

ten jabeekin bitartekoa egin zuten. Gaur egun 7 hektare alokatzen ditut, 3 parke baditut eta 60 bat xerri gizentzen ditut : 45 nik transformaturik eta besteak sailari saltzen ditut.

■ Lurrak alokatzen dituzu ?

Bai. Jabearekin harreman biziki onak ditugu hastapenetik eta enetako sinpleago da alokatzea, ez baitut erosteko beharrik. Lourdios-en instalatzeko inbestimendua apala izan zen eta hemen ere ez ditut arrisku haundirik hartu. Alde hortatik ez dut prezionerik. HCF izanki ez nuen kristoin mailegurik egin nahi eta gero prezioa pean lan egin eta bankuaren menpe izan.

■ Proiektu berri bat baduzu ?

Xerramak ezarri nahi ditut, xerrikumeak sortarazteko. Lurrak xekatzen ditut herrian edo ondokoetan : bi hektare, bastimendu baten eraikitze-ko eta lur edo ohain batekin inguruan. Ez da eremu handi bat baina ohartzen naiz ez dela errex atzemaitea, sustut bortualdean, nun ordokiak gutiziatuak diren. Sailan 20 bat sortzaile dira, falta dira eta faltako dira zonbait erreteta hartzeko baitira. Produksioea hastapenetik bukaerarat eramaitea interesenta atzemaiten dut. Xerrikumeak sortarazi, gizenarazi, transformatu eta saldu, hori da ene helburua. Beharko naiz formatu tekniko baita eta lan baldintzetan ere ez da ber gauza. Presentago izan behar da, baina interesago da, kabalekin harremana ez da bera. Bestalde, bi proiektuetan niz. Maulen saltegi baten idekitzeko proiektua dugu. 12 etxalde gira eta heldu den urtean idekiko dugu. APFPBrekin gogoratzen ari gira. Bestalde, Xuhito berria heldu den urtean ere egingen da, proiektu polotoa da eta abentura kolektibo ederra.

■ Sasi ardiak badituzu ?

Negu huntan sasi ardi tropa ttipi bat erosi dut. 40 bat sasi ardi, herriko bortua baliatzeko, Bazkoko axuri zonbait egiteko eta zikiro zonbait. Urte oro bortuan egonen dira, 700 metro inguru. Herriko mendi horietan lehen behiak baziren baina laboraria erreteta hartzen ari da. Mendia zikitzen da eta untsa atzemaiten dut entretenitza. Urtero bezala suaka egin dugu neguan. Baina gero ez baldin badugu kabalerik ezartzen, ez du zentzurik. Uste dut sasi ardiak untsa egokiak direla hemengo bortu apeletan.

■ Klientak atxiki dituzu ?

Bai. Kontserbekin xiberoko dendetan eta epizeria zonbaitetan sartu naiz. Hemengo jatetxeare-

kin ere lan egiten dut. Lehen Oloroneko merkata astero egiten nuen baina utzi dut. Ekoizle merkatuak sustut udan egiten ditut.

